

Ukullura zankuak
 Sarturik astuak,
 Berari eltzeko prest
 Zeuden pistichuak:
 Armiamak, beterik
 An zeuden chokuak,
 Astoari ekiteko
 Guztiz zaletuak.

Karga ziotenean
 Astuari atera,
 Laster joan zan barrena
 Lastua jatera;
 Euliyak berarekin
 Ukullu aldera,
 Bai ere armiamak
 Orduan lanera.

Astoaren gañean
 Joan ziran euliyak
 Laster gelditu ziran
 Presorik guztiyak;
 Armiamaren sarean
 Denak eroriyak,
 An gelditu ziraden
 Galdurik biziyak.

.
 Orregatikan beti
 Chit zaigu komeni
 Pakean utzitzea
 Albada besteri,
 Euliyak gaitz egin naiz
 Asto gaişuari,
 Armiamaren mende
 Ziraden erori.

ZIRILO ERKIZIA.

ERREGIAK DATOZ....

Munduko denak ikusten ditut
 Jesus-Aurra adoratzen,
 Denen artean, Jesusen lagun,
 Aur bat detala arkitzen:
 Aita lurpian, amaren eskuz
 Chutik doi-doi zait agertzen,
 Umezurtz orri begi onakiñ
 Nórk ez dio begiratzen!

ANTONIO ARZÁC.